

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **26/2021 Mozioa, martxoaren 24koa, turismoaren sektoreari babesa emateko**

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko martxoaren 24an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

26/2021 Mozioa, martxoaren 24koa, turismoaren sektoreari babesa emateko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Foru Gobernuari babesa adierazten diote egiten ari den aurrekontu-ahaleginean, hain zuzen ere tokiko entitate eta turismoaren sektoreko enpresa eta irabazi asmorik gabeko entitateentzako laguntzak emateko, turismo-azpiegiturak hobetzeko eta Araba xede turistiko gisa sendotzeko.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote era koordinatuan jarrai dezala lanean Eusko Jaurlaritzarekin, udalekin eta lurraldeko kuadrillekin, gure eskaintza turistikoa sendotu eta posizionatze aldera, eta prest egoteko, pandemia kontrolatzeak hori ahalbidetzen duenean, mugikortasuna, oporraldia eta biltzarren turismoa berreskuratzeko fasean aurrera egiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 24a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**